Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

3830

EBAZPENA, 2009ko abenduaren 17koa, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariarena, ikasle urrituen unibertsitaterako garraio-gastuak ordaintzeko 2009-2010 ikasturterako laguntzak ebazten dituen 2009ko irailaren 16ko Aginduari buruzko laguntzen onuradun-zerrenda jakinarazten duena.

Kontuan hartuta, lehenik, ikasle urrituen unibertsitate-garraioaren 2009-2010 ikasturterako gastuak ordaintzeko laguntzetarako dei egin eta laguntzok arautzen dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2009ko irailaren 16ko Agindua (EHAA, 196 zenbakia, 2009ko urriaren 13koa), bigarrenik, Gizarte Ekintzarako Kabinetearen proposamena, eta azkenik, laguntzak aurkeztu diren hurrenkera, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea, denek jakin dezaten, zerrendan agertzen diren pertsonei, dagokien espediente zenbakiaren bidez identifikatuta, diru-laguntzak esleitu zaizkiela, betiere 2009ko irailaren 16ko Aginduan ezarritako baldintzetan eta I. eranskinean zehazten diren kopuruetan. Ebatzi du, orobat, eranskin berean aipatzen diren eskaerak ezestea.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan ezarritakoaren ildotik, diru-laguntza jasotzeak berezko duen betebeharretakoren bat onuradunaren erruagatik ez bada betetzen, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko da, eta hala badagokio, diru-laguntza itzuli beharko da, legezko interes eta guzti itzuli ere.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar dezakete interesatuek, Gizarte Gaietako sailburuordearen aurrean. Horretarako, hilabeteko epea izango dute, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abenduaren 17a.

Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria,
ALFONSO GURPEGUI RUIZ.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

3830

RESOLUCIÓN de 17 de diciembre de 2009, del Director de Servicios Sociales, por la que se hace pública la relación de personas beneficiarias de las ayudas relativas a la Orden de 16 de septiembre de 2009, por la que se regulan las ayudas para sufragar gastos de transporte universitario para estudiantes con discapacidad, para el curso académico 2009-2010.

De conformidad con lo establecido en la Orden de 16 de septiembre de 2009 de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales y de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación (BOPV n.º 196, de 13 de octubre de 2009), por la que se convocan y regulan ayudas para sufragar gastos de transporte universitario para estudiantes con discapacidad, para su aplicación durante el curso académico 2009-2010, una vez considerada la propuesta del Gabinete de Acción Social y atendiendo al orden de presentación de las ayudas,

RESUELVO:

Primero.– Publicar para su general conocimiento la adjudicación de ayudas económicas a las siguientes personas que se relacionan, identificadas con el correspondiente número de expediente, en los términos contenidos en la Orden de 16 de septiembre de 2009 citada y por las cuantías que se detallan en el anexo I, y desestimar las solicitudes relacionadas en el mismo anexo.

Segundo.– De conformidad con lo establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el Régimen General de Garantías y Reintegros de las Subvenciones otorgadas con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, el incumplimiento de cualquiera de las obligaciones derivadas de la concesión de subvención, por razones imputables al beneficiario, determinará la pérdida del derecho a la percepción de la misma y, en su caso, la obligación de reintegrar la cuantía concedida y percibida más los intereses legales que resultaren de aplicación.

Tercero.– Contra esta Resolución las personas interesadas podrán interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Asuntos Sociales en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de diciembre de 2009.

El Director de Servicios Sociales,
ALFONSO GURPEGUI RUIZ.

I. ERASKINA / *ANEXO I*

(1) 2009ko irailaren 16ko Aginduaren 2. artikulua ez betetzea, alegia onuradunei buruzkoa, ez zaio-eta aitortzen garraio kolektiboak erabiltzeko behar besteko mugikortasun-arazoak, minusbaliotasunaren maila onartzeko, aitortzeko eta kalifikatzeko prozesua arautzen duen abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuan 5. artikuluaren 4 b) atalean ezarritakoari jarraituz. / *No cumplir con lo establecido en el art. 2 de la Orden de 16 de septiembre de 2009 sobre las personas beneficiarias, ya que no se le reconoce el grado de dificultad de movilidad para utilizar transportes colectivos según lo establecido en el art. 4 b) del art. 5 del Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de minusvalía.*

(2) 2009ko irailaren 16ko Aginduaren 8.b) artikulua ez betetzea,eskarien aurkezpen epeari buruzkoa / *No cumplir con lo establecido en el art. 8 b) de la orden de 16 de septiembre de 2009 sobre el plazo de presentación de solicitudes.*

Espediente Zk. *N.º Expediente*	Onartua *Concedido*	Ez Onartua *Denegado*
UNI-200900/0001	640,32	
UNI-200900/0002	139,20	
UNI-200900/0003	2.988,16	
UNI-200900/0004	4.347,00	
UNI-200900/0005	1.067,20	
UNI-200900/0006		(1)
UNI-200900/0007	144,90	
UNI-200900/0008	12.000,00	
UNI-200900/0009	12.000,00	
UNI-200900/0010	1.092,72	
UNI-200900/0011	9.776,20	
UNI-200900/0012	280,72	
UNI-200900/0013	941,00	
UNI-200900/0014	504,60	
UNI-200900/0015	1.000,00	
UNI-200900/0016	305,00	
UNI-200900/0017	2.003,32	
UNI-200900/0018	2.079,88	
UNI-200900/0019	5.120,00	
UNI-200900/0020	6.556,32	
UNI-200900/0021	487,20	
UNI-200900/0022	5.890,82	
UNI-200900/0023	2.484,70	
UNI-200900/0024	11.644,00	
UNI-200900/0025	515,00	
UNI-200900/0026		(2)
UNI-200900/0027	2.212,70	